

Hirugarren sektore sozialaren definizio operatiboa

SAREEKIN EGINDAKO HAUSNARKETAREN EMAITZA, EUSKADIKO
HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN LIBURU ZURIAREN ESPARRUAN

Bizkaiko hirugarren
sektoreko behatokia

2014ko martxoa
2019ko abenduan eguneratua

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia

observatorio del
tercer sector de bizkaia



Hirugarren sektore sozialaren definizio operatiboa

SAREEKIN EGINDAKO HAUSNARKETAREN EMAITZA, EUSKADIKO HIRUGARREN
SEKTORE SOZIALAREN LIBURU ZURIAREN ESPARRUAN

Bizkaiko Hirugarren Sektoreko Behatokiko taldea

2014ko martxoa
2019ko abenduan eguneratua

bizkaiko hirugarren
sektorearen behatokia
observatorio del
tercer sector de bizkaia



Aurkibidea

SARRERA.....	4
HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN DEFINIZIO OPERATIBOA.....	4
ERAKUNDEEN SAILKAPENA	12

SARRERA

Dokumentu hau sektoreko erakundeekin egindako hausnarketa partekatu baten esparruan taxutua da, hirugarren sektore sozialaren definizioarekin loturik. Haren gerturatze teorikoa "Hirugarren sektore sozialaren definiziora gerturatzea" izeneko dokumentuaren lehendabiziko zatian jaso da.

Zehazki, 2014ko martxoaren 26an Bilbon erakunde horiekin izandako lan-topaketan¹ hirugarren sektore sozialari buruz adostutako mugapen operatiboa jasotzen du; hari buruzko oinarriak bere garaian onartu zen *EAEko hirugarren sektore sozialaren Liburu Zuriko* ikerketa-proiektuaren aztergai izan ziren. Gerora Euskadiko hirugarren sektore sozialaren 2019ko barometroaren esparruan berrikusi da, baita *Euskadiko hirugarren sektore sozialaren 2020ko Liburu Zurian* ere. Horretaz gainera, mugapen horren eguneratze bat ere jasotzen du, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak dioena kontuan harturik. Era berean, lanerako interesgarrien jotako sektoreko erakundeen sailkapen-modu batzuk eta besteak ere erakusten dira.

HIRUGARREN SEKTORE SOZIALAREN DEFINIZIO OPERATIBOA

Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Legeak (maiatzaren 12ko 6/2016) adierazten duenez, hirugarren sektorea osatzen duten erakundeek legezko egitura eta nortasun juridikoa dute, irudi juridikoari dagokion erregistroan inskribatuta daude eta borondatezko jarduera gauzatzen dute; halaber, irabazi-asmorik gabeak, pribatuak, autogobernatuak eta autokudeatutakoak dira, egoitza eta jarduera Euskadin dute, eta haien helburu nagusia honako hau da: gizarteratzea sustatzea, garapeneko lankidetzak sustatzea, eta bazterketa egoeran edo egoera ahulean, babesgabe edo mendekotasun egoeran dauden pertsona, familia, kolektibo edo komunitateen eskubideak garatzea. Hori guztia esku-hartze sozialeko jardueren bidez egiten dute; hau da, gizarte-zerbitzuak, enplegurako sarbidea sustatzea eta gizarteratzea sustatzera bideratutako beste edozein jardueraren bidez, helburu horrekin eremu, politika eta sistemen elkarreragineko espazioetan garatutako jarduerak barne, hala nola gizarte eta lan arloko eremua, gizarte eta bizitoki arlokoa, gizarte eta hezkuntza arlokoa, gizarte eta osasun arlokoa, gizarte eta justizia arlokoa edo gizarte eta kultura arlokoa, besteak beste.

Ikerketa-proiektu honen esparruan eta esandako lege horrek biltzen duen definizioaren ildo beretik, honako hauek hartuko dira Euskadiko hirugarren sektore sozialtzat:

1. ekimen formalizatu bat osatzen dutenak;
2. aktiboan direnak;
3. gizarte zibiletik sortuak;
4. kudeaketa-autonomia eta independentzia dutenak hirugarren sektorekotzat hartzen ez diren erakundeekiko (administrazio publikoa, enpresak, aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak);
5. irabazi asmorik ez dutenak;
6. borondatezko partaidetza-mailaren bat dutenak;
7. oro har, partaidetza-eredu demokratikoa baliatzen dutenak;
8. familia, kolektibo eta komunitate kalteberenak gizarteratzea eta pertsonen eskubidearen egikaritze efektiboa sustatzea xede nagusi dutenak;
9. EAEn eta EAEtik lan egiten dutenak.

Honako taula honetan, irizpide horiek adierazle konkretutan biltzen dira:

¹ 2014ko martxoaren 26an, lan-topaketa bat egin zen, honako erakunde hauen partaidetzarekin: HIREKIN, ELKARTEAN, FEDEFES, HIRUKIDE, ELHABE eta ONCE.

IRIZPIDE OROKORRAK	INTERPRETAZIOA	BALDINTZAK	BAZTERKETAK
1.- Ekimen formalizatuak	Egitura legezko eta juridikoa duten erakundeak.	Dagokion erregistro ofizialean izena emanda egotea, bere figura juridikoarekin bat.	
2.- Lanean aritzea	Jarduerak gauzatzen dituzten erakundeak.	Kontsultaren aurreko urtean jarduerak gauzatu izana.	
3.- Gizarte zibiletik sortuak	Ezaugarri eta jatorri pribatua duten erakundeak, herritarren ekimen asketik sortuak.	Euskal gizartetik sortuak; hasieratik, xede dituzten familia, talde edo kolektibo eta/edo komunitateekin lotura eta konpromiso egonkorra lortzen dute, edo eragindako pertsonak eta familiek eurek osatuak dira.	
4.- Kudeaketa-autonomia eta independentzia dute hirugarren sektorekotzat hartzen ez diren erakundeekiko (administrazio publikoa, enpresak, aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak)	Kudeaketa-autonomiaz eta independentziaz funtzionatzen dute administrazio publikoarekiko (vs sektore pribatua) eta enpresekiko (vs irabazi asmorik gabe), baita hirugarren sektorekotzat hartzen ez diren beste erakunde batzuekiko ere (hala nola aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak). Horrek ez du esan nahi halakoen partaidetza edo diru-laguntza izan ez dezaketenik, autonomiari eusten badiote, behinik behin (1).	Gobernu-organoetako kideen % 50 baino gehiago ez izatea hirugarren sektorekoa ez den erakunde bateko ordezkariak, eta sortzen edo kontrolatzen dituzten erakundeetako ez bestelako xedeak edo helburuak izatea (2). Salbuespen modura, erakunde bereziak biltzen dira: ONCE, Gurutze Gorria eta Caritas (3).	Bazterturik geratzen dira aurrezki-kutxetako gizarte-ekintzak. Bazterturik geratzen dira funtzio publiko jakin batzuk gauzatzera deitutako korporazioak, hala nola elkargo profesionalak edo merkataritzaganberak (oinarri pribatuko eta zuzenbide publikoko korporazioak, alegia).
5.- Irabazi asmorik gabeak	Erakundeon xedea ez da irabaziak lortzea, eta, halakorik izanez gero, ezin dira kideen artean banatu, baizik eta erakundearen xede soziala betetzera bideratu behar dira.	Irabazi asmorik gabeko sektoreko figura juridiko propioa izatea: fundazioa, elkarteak, ekimen sozialeko kooperatiba (4), gizarteratze-enpresa (salbuespen bakarria enplegu-zentro bereziekin batera, kasu horretan erakundeak merkataritza-sozietate izan ahalko baitira) (5) eta erakunde erlijiosoa (zuzenean egiten duenean esku-hartze soziala) (6). Barnean hartzen dira enplegu-zentro bereziak (7), irabazi asmorik gabeko erakundeen mende badaude.	Bazterturik geratzen dira elkartzeko eskubidea arautzeko martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoak zuzentzen ez dituen elkarteak, zeinak irabazi asmorik gabeko erakundeetara mugatzen baitu jarduna, eta, ondorioz, aplikazio-esparrutik kanpo uzten baititu sozietate zibilak, merkataritzako sozietateak, industria-sozietateak eta lan-sozietateak, kooperatibak eta mutualitateak, eta ondasunen edo jabeen erkidegoak, horien xedeak eta izaera ez baitatoz bat oro har elkarteei eratzikitzen zaien funtsarekin. Halaber, kanpoan geratzen dira elkartzeko araubide espezifikoak dutenak, beren izaera "berezia" dela eta, hala nola alderdi politikoak, sindikatuak, enpresa-elkarteak, elizak, kirol-federazioak, eta kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak (7).
6.- Boluntarioak	Erakundeok, oro har, gobernu-organoetako kideen borondatezko lana izaten dute, edota hirugarren pertsonena. Horretaz gainera, uler daiteke kideen partaidetza haien borondate askearen mende daudela, eta ez dutela kanpo-inposiziorik.	Oro har, boluntarioz erabat edo partzialki osaturiko oinarri sozial bat edukitzea (bazkideak, gobernu-organoak osatzen dituzten pertsonak edo erakundearekin modu boluntarioan lankidetzan jarduten duten bestelako pertsonak). Irabazi asmorik gabeko sektoreko figura juridiko propioen berezko ezaugarri nagusietako bat da, fundazioei eta elkarteei aplikatzeko zaien araudiak ezartzen duenarekin bat.	

7.- Oro har, partaidetza-moduak hartzen dituzte	Partaidetza-moduak hartzen dituzten erakundeak dira.	Irabazi asmorik gabeko sektoreko figura juridiko propio askoren berezko ezaugarrietako bat da, aplikatzekoa zaien araudiak ezartzen duenarekin bat.	
8.- Haien helburu nagusia izaten da familia, kolektibo eta komunitate zaurgarrienak gizarteratzea eta pertsonen eskubidearen egikaritze efektiboak sustatzea	<p>Pertsonen gizarteratzea eta sustapena erdietsi nahi duten erakundeak dira, eta, horretarako, "arlotan, sistema eta politika sozialekin" zerikusia duten jarduerak garatzen dituzte, gizarte-eskubideen gauzatze eraginkorra ahalbidetzera eta pertsonak ongizate sozialera txertatzera bideratuta, bazterkeria- edo zaurgarritasun-egoerei aurre egin behar dietenei arreta berezia jarriz.</p> <p>Erabilera sozialeko xedea dute, eta, hori hala den heinean, esan dezakegu pertsonen kolektibitate zehaztugabeetara bideratzen direla, eta ez pertsona jakinetara.</p>	<p>Jardunaren hartzailak zaurgarritasun handiagoko egoerak bizi dituzten pertsonak, familiak, kolektiboak eta komunitateak izan ohi dira (adina, sexua, jatorria, etnia, desgaitasuna, autonomia-maila eta halako faktoreak direla eta, baita faktore horiekin lotutako diskriminazio-egoerek eraginda ere); halaber, gizarte-bazterkerian, desberdintasunean, babesik gabe eta/edo mendekotasun-egoeran daudenak ere bai.</p> <p>Salbuespen dira "gizarte-aholkularitzarekin" lotutako jarduerak gauzatzen dituzten erakundeak, hirugarren sektore sozialeko erakundeei laguntza ematen dietenak. Kideen helburu hutsetatik harago doazen xedek lortu nahi izatea; hau da, bazkide ez diren pertsonentzako zerbitzuak edo jarduerak garatzea (bigarren mailako erakundeak izan ezik).</p>	<p>Bazterturik geratzen dira ikastetxeak. Bazterturik geratzen dira, halaber, osasun-arretako zentroak (ospitaleak, klinikak, sendategiak...). Bazterturik daude xede erlijioso hutsetarako eraturako konfesioak, erlijio-komunitateak eta elkarteak, edota haien erakunde-xedea nagusiki jarduera erlijiosoetara bideratuta daukatenak.</p> <p>Orobat, bazterturik daude jarduera nagusia kirolaren, kulturaren edo ingurumenaren esparruarekin lotuta daukatenak, <i>profesionalen elkarteak, ikasleen guraso-elkarteak, ikasleen elkarteak, garai bateko ikasleen elkarteak, eragindako pertsonen eta biktimen elkarteak (gaixotasunak izan ezik), txakurzaleen elkarteak eta tankerakoak, etxebizitza sustatzekoak, borondatezko edo laneko gizarte-aurreikuspeneko fundazioak, bizilagunen elkarteak, gazte-elkarteak eta tankera horretakoak.</i></p>
9.- EAEn eta EAEtik lan egiten dutenak	Erakundeek EAEn izan beharko dute gizarte-egoitza edo ordezkariaren bat, eta beren jarduera osorik edo zati batean bertan gauzatu beharko dute.	EAEren muga barruan lan egitea, eta EAEn bertan izatea egoitza edo, gutxienez, ordezkari bat.	

Ohar argigarriak:

1. Kudeaketa-autonomiaz eta independentziaz hitz egitean, argi eta garbi bost eragile identifikatzen dira, eta haien gainean ezinbestekoa da honako hauek izatea: administrazio publikoak, enpresak, aurrezki-kutxak, alderdi politikoak eta sindikatuak. Alabaina, haien artean ez da Eliza sartzen; izan ere, ezin dugu albo batera utzi hirugarren sektoreko erakunde esanguratsu asko eta asko harekin estu lotuta daudela jatorriz. Alde horretatik, behatokiak erabaki du errealtate horrekin koherente jokatzeari.
2. Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak jasotzen duen moduan, hirugarren sektore sozialeko erakundetzat hartuko dira gaur egun ere existitzen diren fundazio eta erakunde historikoak, EAEn berrogeita hamar urtetik gorako ibilbidea dutenak, baldin eta hirugarren sektore sozialeko sareren baten barnean badaude eta definizioan adierazitako irizpideak betetzen badituzte, nahiz eta beren jatorrizko estatutuek ezarri instituzio publikoen ordezkariak edukitzea presentzia handiena edo bakarra beren gobernu-organoei. Horretaz gainera, azterlanaren xedean sartzen dira gobernu-organoei erakunde publikoetako ordezkariak presentzia nagusia edo bakarra duten enplegu-zentro bereziak, baldin eta definizioan adierazitako gainerako baldintzak betetzen badituzte eta hirugarren sektore sozialeko sareren baten barnean badaude.
3. Gurutze Gorria eta ONCE erakunde bereziak dira, tutoretzapekoak, eta Estatuaren babesarekin gauzatzen dute beren jarduna (Lan, Migrazio eta Gizarte Segurantzako Ministerioa). (Ikus 415/1996 Errege Dekretua, martxoaren 1ekoa, eta 358/1991 Errege Dekretua, martxoaren 15ekoa.) Irizten da ez dutela betetzen 4. irizpidea, eta, horretatik, haiek biltzeak zalantza sortzen ditu. Hala eta guztiz ere, erakundeon jardunak gizarte-ekintzaren sektorean duen inpaktuak eta erreferentziako beste ikerlan batzuetan ere bildu izanak eraman gaitu bi erakundeek ez uztea alboratuta honako lan honetan ere.
4. Ekimen sozialaren kalifikazioak zera esan nahi du, kooperatibak, edozer klasetakoak izanik ere, ez duela irabazi asmorik eta haren xedea dela laguntza-zerbitzuak ematea –osasun-, hezkuntza-, kultura-jarduerak edo bestelako jarduerak sozialak eginez– edo bestelako edozer jarduerak ekonomiko gauzatzea, betiere edozer eratako gizarte-bazterkeria bizi duten pertsonak laneratzekeo xedez –eta, oro har, merkatuak artatzen ez dituen premia sozialak asetzea– (apirilaren 4ko 61/2000 Dekretua).
5. Gizarteratze-enpresek hainbat figura juridiko izan ditzakete (merkataritza-sozietateak, ekonomia sozialeko sozietateak eta abar), baina irabazi asmorik gabeko erakundeek sustatzen eta partaidetzen dituzte (gutxienez % 33an); hala, haien xedea da bazterkeria-egoeran dauden kolektiboak lan-munduan txertatzea (txertaketa-erreminta iragankor gisa hartzen dira, eta ez finalista gisa), eta, horretaz gainera, ezin dituzte etekinak banatu (abenduaren 26ko 305/2000 Dekretua).
6. Eliza azterlanaren unibertsoetik kanpo geratzen baldin bada ere, zenbait kongregazioak eta tankera horretako erakunde erlijiosoen, beren egitekoaren parte gisa, gizarte-ekintzako lan nabarmena egiten dute egoera zaurgarrietan dauden pertsonen alde. 765/1995 Errege Dekretuak jasotzen duenez –interes orokorreko jardueretan partaidetza pribatuaren zerga-pizgarriei

eta fundazioei buruzko azaroaren 24ko 30/1994 Legean bilduta bezala, han aurreikusitako zerga-onurak izango dituzte –bertan zehazten baitira irabazi asmorik gabeko fundazioen eta elkarteen zerga-araubideko xehetasunak–, Espainiako Estatuaren eta Vatikanoren artean 1979ko urtarrilaren 3an sinatutako Auzi Ekonomikoei buruzko Akordioaren IV. artikuluan bildutako eliza-erakundeek, Espainiako Erlijio Erakunde Ebanjelikoen Federazioko elizek, Komunitate Israelarren Federazioko komunitateek eta Espainiako Batzordeko Islamikokoek, baita haien kide diren komunitateek ere, baldin eta esandako lege horretan aurreikusitako xedeak baldin badituzte (gizarte-laguntza, zibikoa, hezkuntza, kulturala, zientifikoa, kirola, osasunaren alorra, garapenerako lankidetzeta, ingurumena babestea, ekonomia soziala edo ikerketa sustatzea, boluntariotza soziala sustatzea, edo tankera horretako interes orokorreko xedeak dituztenak). Alderatze horretatik abiatu, ulertzen dugu har ditzakegula irabazi asmorik gabeko erakundetzat ordena, kongregazio eta bestelako erakunde erlijiosoak, baldin eta aipatutako eskakizun horiek betetzen badituzte.

7. Enplegu-zentro berezien helburu nagusia izaten da desgaitasuna duten langileei lan produktiboa eta ordaindua eskaintzea, haien ezaugarri pertsonalei egokitu, guztia ere pertsona horiei lan-merkatu ohikoan integratzeko erraztasunak eskaintze aldera. Etekin posibleen aplikazioari dagokionez, zentroek izan dezakete irabazi asmoa ala ez, segun eta osorik erakundean bertan jasanarazten duten edo haien zati bat aprobetxatzen duten erakunde titularrak estali beharrekoak bestelako xederen baterako (2273/1985 Errege Dekretua, abenduaren 4koa, enplegu-zentro berezien erregelamendua onartzen duena, zeinak Minusbaliatuak gizarteratzeko apirilaren 7ko 13/1982 Legearen 42. artikuluan baitaude definituta). Ikusirik eztabaida dagoela enplegu-zentro berezien izaera finalistarekin, baina ikusirik zentro horiek lanpostu normalizatuak eskuratzeko zubi-lana egiten dutela, txertatze-enpresen tankerako trataera ematea hautatzen da (gizartetik baztertuta geratzeko arriskuan dauden kolektiboan lan-munduan txertatzea sustatzeko erremintak, eta haien etekinak txertaketa horretarako baliatzen dira); hala, azterlanaren xedearen barruan bilduko dira enplegu-zentro bereziak ere, irabazi asmorik gabeko erakundeen mende daudenean, eta, salbuespen gisa, nahiz eta gobernu-organoetan erakunde publikoetako ordezkarien presentzia nagusia edo erabatekoa izan, baldin eta definizioan zehaztutako gainerako eskakizunak betetzen badituzte eta hirugarren sektore sozialaren sareren batean baldin badaude.
8. Bazterturik geratzen dira 1/2002 Legeak arautzen ez dituen erakundeak, haien xedeak eta izaera ez baitaude loturik elkarteetatik oro har espero izatekoa den funtsarekin. Bazterturik geratzen dira izaera "bereziko" elkarteak; izan ere, elkarteen legeak ezarritakoez bestelako xedeak dituzte eta hala ezartzen du Espainiako Konstituzioak (alderdi politikoak, 6. artikulua; langileen sindikatuak, 7. artikulua; enpresa-elkarteak, 7. artikulua; kontsumitzaileen eta erabiltzaileen elkarteak, 51.2 artikulua; kirol-federazioak, 43.3 artikulua).

Taula horrek ikuspegi orokor bat ematen du, egin nahi den ikerlanari buruzko alderaketa-erreferentziek gaur egun batzen eta urruntzen dituzten alderdi metodologikoei buruz:

Erreferentzia gisa baliatutako iturria/lana	Bizkaiko hirugarren sektorearen Liburu Zuria	Bizkaiko hirugarren sektorearen urtekaria	Bizkaiko hirugarren sektore sozialaren diagnostikoa	Euskadiko hirugarren sektore sozialaren Liburu Zuria
Azterlanaren erakunde edo organismo arduraduna	Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia	Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia	Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia	Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia
Azken argitalpen-urtea	2010	2012	2012	2015
Datuen erreferentziako lurralde-esparrua	Bizkaia	Bizkaia	Bizkaia	EAE
Datu orokorren erreferentzia-urtea	2007	2010	2010	2014
Datu ekonomikoen erreferentzia-urtea	2006	2009	2009	2013
Azterketaren xedea	Hirugarren sektorea	Hirugarren sektorea	Hirugarren sektore soziala	Hirugarren sektore soziala
Azterketaren helburuaren definizioa	Hirugarren sektoretzat hartzen da gizarte zibilak aktiboan duen ekimen-multzoa, kudeaketa-autonomia eta independentzia duena, irabazi asmorik gabea eta, eskuarki, boluntarioa; beren jarduna esku-hartze sozialera bideratzen dute zentzu zabalean, eta horrek esan nahi du haien xedea dela ingurune soziala hobetzea askotariko esparru ugariatik.	Hirugarren sektoretzat hartzen da gizarte zibilak aktiboan duen ekimen-multzoa, kudeaketa-autonomia eta independentzia duena, irabazi asmorik gabea eta, eskuarki, boluntarioa; beren jarduna esku-hartze sozialera bideratzen dute zentzu zabalean, eta horrek esan nahi du haien xedea dela ingurune soziala hobetzea askotariko esparru ugariatik.	Hirugarren sektore sozialtzat zera ulertzen dugu, pertsonen gizarteratzea eta sustapena erdietsi nahi duten hirugarren sektoreko erakundeek osatutakoa. Horretarako, "arlotan, sistema eta politika sozialekin" zerikusia duten jarduerak garatzen dituzte, gizarte-ekubideen gauzatze eraginkorra ahalbidetzera eta pertsonak ongizate sozialera txertatzera bideratuta, bazterkeria- edo zaugarritasun-egoerei aurre egin behar dietenei arreta berezia jarri.	Hirugarren sektore sozialtzat hartzen dira gizarte zibileko ekimenen multzoak osatuak, formalizatuak eta aktiboan direnak; halakoek kudeaketa-autonomia eta independentzia dituzte, ez dute irabazi asmorik eta, oro har, boluntarioak, beren jardura lurralde jakin batean eta bertatik egiten dute, eta haien xede nagusia izaten da baztertze, kalte, babesik gabe, urritasun eta/edo menpekotasun egoeran dauden pertsona, familia, talde edo komunitateetan eskubideen jardura eraginkorra eta gizarte-txertaketa esku-hartze sozialeko ekintzen bidez bultzatzea.
Azterlanaren xedearn mugapen operatiboa	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dira kooperatibak sartzten, nahiz eta gizarte-ekintzaren alorrean jardun, nola eta ez diren ekimen sozialeko kooperatibak. ▪ Ez dira sartzten enplegu-zentro bereziak. ▪ Ez dira sartzten erakunde bereziak, Caritas izan ezik. ▪ Barnean hartzen ditu garapenerako nazioarteko lankidetzeta eta aisialdia. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dira kooperatibak sartzten, nahiz eta gizarte-ekintzaren alorrean jardun, nola eta ez diren ekimen sozialeko kooperatibak. ▪ Ez dira sartzten enplegu-zentro bereziak. ▪ Ez dira sartzten erakunde bereziak, Caritas izan ezik. ▪ Barnean hartzen ditu garapenerako nazioarteko lankidetzeta eta aisialdia. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dira sartzten garapenerako nazioarteko lankidetzeta, aisialdia edo giza eskubideak. Barnean hartzen ditu emakumeen, etorkinen eta adinekoen erakundeak, edo desgaitasunaren eta osasunaren alorrekoak, baldin eta zeharkako dimentsioa izan badezakete, gizarte-ekintza bera gaingituagatik ere. 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Ez dira kooperatibak sartzten, nahiz eta gizarte-ekintzaren alorrean jardun, nola eta ez diren ekimen sozialeko kooperatibak. ▪ Barnean hartzen dira gizarteratze-zentroak edo enplegu-zentro bereziak, oro har, irabazi asmoko erakundeen mendekoak badira. ▪ Barnean hartzen dira erakunde bereziak: Caritas, Gurutze Gorria eta ONCE. ▪ Barnean hartzen ditu garapenerako nazioarteko lankidetzeta eta aisialdia.

Beste ohar batzuk	Barnean hartzen dira hainbat esparrutako erakundeak, hala nola gizarte-ekintza, kultura, garapenerako nazioarteko lankidetzak, giza eskubideak, osasuna, aisialdia eta denbora librearen enplegua, ingurumena eta abar. Baina ez kirolaren esparrukoak.	Barnean hartzen dira hainbat esparrutako erakundeak, hala nola gizarte-ekintza, kultura, garapenerako nazioarteko lankidetzak, giza eskubideak, osasuna, aisialdia eta denbora librearen enplegua, ingurumena eta abar. Baina ez kirolaren esparrukoak.	Lan hau urte horretan bertan argitaratutako urtekariaren separata bat da, eta, erreferentzia gisa, hartarako baliatutako laginaren zati bat hartzen du, zeina ez baitaiteke ordezgarritzat jo estatistikoki –eta, horrenbestez, tentuz hartu beharkeoa da–.	Oro har, honako esparru hauek biltzen ditu: gizarte-zerbitzuak, osasuna, enplegua, garapenerako nazioarteko lankidetzak eta aisialdiaren zati bat (denbora libreko hezkuntza-taldeak) eta sozial-transbertsala (emakumeak, etorkinak, gutxiengo etnikoak, familiak eta bestelakoak) eta giza eskubideak (presoeikin eta zaurgarritasun-egoeran dauden tankera horretako kolektiboekin lotutako erakundeak). Oro har, kanpoan uzten ditu esparru hauetako erakundeak: kirola, kultura, ingurumena eta denbora librearen parte bat (gazte-elkarteak), esparru zibikoaren parte bat (bizilagunen elkarteak) eta giza eskubideen esparruko parte bat (bereziki zaurgarritasun- edo bazterkeria-egoeran, mendekotasunean, babesgabezia eta/edo desgaitasun-egoeran dauden kolektiboekin zuzenduta ez daudenak).
-------------------	---	---	---	---

Erreferentzia gisa baliatutako iturria/lana	Hirugarren sektore zibiko-sozialaren Liburu Zuria	Kataluniako hirugarren sektore sozialaren Urtekaria	Kataluniako hirugarren sektore sozialaren Urtekaria	Hirugarren sektore sozialaren Barometroa	Hirugarren sektore sozialaren Barometroa
Azterlanaren erakunde edo organismo arduraduna	Kataluniako Hirugarren Sektorearen Behatokia	Kataluniako Hirugarren Sektorearen Behatokia	Kataluniako Hirugarren Sektorearen Behatokia	Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia	Kataluniako hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaia
Azken argitalpen-urtea	2003	2009	2013	2015	2016
Datuen erreferentziako lurralde-esparrua	Katalunia	Katalunia	Katalunia	Katalunia	Katalunia
Datu orokorren erreferentzia-urtea	2001	2007	2011	2015	2016
Datu ekonomikoen erreferentzia-urtea		2006	2010	2014	2015
Azterketaren xedea	Hirugarren sektore soziala	Hirugarren sektore soziala	Hirugarren sektore soziala	Hirugarren sektore soziala	Hirugarren sektore soziala
Azterketaren helburuaren definizioa	Erakunde zibiko-sozialen jardunak honako xede hauek izaten ditu: pertsonaren sustapena, desberdintasun sozioekonomikoak murriztea eta gizarte-bazterkeriaren kontra borroka egitea.	Pertsonaren sustapenean eta zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboak gizarteratzen lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeak osatuta dago.	Hirugarren sektore sozialtzat hartzen dira pertsonaren sustapenean eta zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboak eta gizarteratzen lan egiten duten hirugarren sektoreko erakundeak.	Irabazi asmorik gabeko erakunde sozialek hainbat forma juridiko izan ohi dituzte, hala nola elkarteak, fundazioak, ekimen sozialeko kooperatibak eta gizarteratze-enpresak, eta askotariko kolektiboekin eskubide sozialak defendatzen jarduten dute (haurrak eta familia; gazteak; etorkinak; desgaitasun psikikoak, fisikoak eta sentsorialak dituztenak; droga-mendekotasunak dituztenak; lanpostu bat eskuratzeko zailtasunak dituztenak; etxerik gabek...)	Aurrekoarekiko aldaketarik gabe.
Azterlanaren xedearren mugapen operatiboa	▪ Ez dira kooperatibak sartzen, nahiz eta gizarte-ekintzaren alorrean jardun, nola eta ez diren				

	<p>ekimen sozialeko kooperatibak.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Bazterturik dago garapenerako nazioarteko lankidetzak. ▪ Barnean hartzen ditu denbora libreko erakundeak. ▪ Barnean hartzen ditu erakunde bereziak (ONCE, Caritas eta Gurutze Gorria). 	
Beste ohar batzuk	2015ean eta 2016an, Kataluniako behatokiak eta elkarten kontseiluak <i>El Panoramic</i> izeneko lana argitaratu dute, zeinak hirugarren sektoreari buruzko definizio zabalagoa hartzen baitu (hori dela eta, orain-oraingoz ez dugu erreferentzia gisa hartuko lan honetarako).	Aztertzekoak dira, oro har, Hirugarren sektore sozialeko erakundeen Mahaiko federazioetako erakunde kide guztiak, Kataluniako Erakunde Sozialen Mapan erroldatuak.

Erreferentzia gisa baliatutako iturria/lana	Espainiako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko urtekaria	Espainiako Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko urtekaria	Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea 2015ean
Azterlanaren erakunde edo organismo arduraduna	Luis Vives fundazioa eta EDIS	Luis Vives fundazioa eta EDIS	Gizarte Ekintzako Hirugarren Sektoreko plataforma
Azken argitalpen-urtea	2010	2012	2016
Datuen erreferentziako lurralde-esparrua	Espainia	Espainia	Espainia
Datu orokorren erreferentzia-urtea	2008	2010	2013/2015
Datu ekonomikoen erreferentzia-urtea	2007	2009	2013
Azterketaren xedea	Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea	Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea	Gizarte-ekintzako hirugarren sektorea
Azterketaren helburuaren definizioa		Gizarte-ekintzako hirugarren sektoretzat hartzen da borondatezko eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuz osatutako esparrua, zeinak, herritarren ekimen askearen bidez osaturik, modu autonomoan eta solidarioan aritzen baitira; hala, interes orokorreko ekintzen bitartez, saiatzeko dira eskubide sozialen aitortza eta gauzapena sustatzen, kohesio soziala eta gizarteratzea lortzen dimentsio guztietan, eta kolektibo sozial jakin batzuk ongizate-maila onargarrietatik baztertuta ez uzten.	Aurrekoarekiko aldaketarik gabe.
Azterlanaren xedearen mugapen operatiboa		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Gizarte-ekintzako kooperatibak biltzen ditu, ekimen sozialekotzat sailkatuta egon ala ez (hemen bakarrik biltzen dira irabazi asmorik gabeko erakundeak edo xede sozialen bat dutenak). 	Aurrekoarekiko aldaketarik gabe.

		<ul style="list-style-type: none"> ▪ Barnean hartzen ditu enplegu-zentro bereziak. ▪ Barnean hartzen ditu Espainian gizarte-ekintzan diharduten GGKEak. ▪ Ez du barnean hartzen denbora librea. ▪ Barnean hartzen ditu erakunde bereziak (ONCE, Caritas eta Gurutze Gorria). 	
Beste ohar batzuk	Lan horiekin aldatu egiten dira emaitzak, segun eta erakunde berezien datuak biltzen diren ala ez (Gurutze Gorria, ONCE eta Caritas).	Lan horiekin aldatu egiten dira emaitzak, segun eta erakunde berezien datuak biltzen diren ala ez (Gurutze Gorria, ONCE eta Caritas).	Lan horiekin aldatu egiten dira emaitzak, segun eta erakunde berezien datuak biltzen diren ala ez (Gurutze Gorria, ONCE eta Caritas). Txosten honen alderaketari dagokionez, erakunde bereziak biltzen ez dituzten emaitzak hartu dira aintzat. Denbora-erreferentzia aldatu egiten da landa-lana egiten den urtearen arabera (2015), edo erreferentzia-urtearen aldean (2013); izan ere, esplizituki galdetzen zen esparru batzuetan, hala nola gobernantzan, boluntariorian, enpleguan, diru-sarreretan, gastu eta finantzaketan.

ERAKUNDEEN SAILKAPENA

ZER KOLEKTIBORI ZUZENDUTA

osasun mentaleko arazoak dituzten pertsonak (gaixotasun mentalak) eta haien familiak
desgaitasunen bat duten pertsonak eta haien familiak
haurrak, nerabeak eta haien familiak
gazteak
emakumeak
adineko pertsonak
etorkinak
errefuxiatuak eta asilo-eskatzailak
adikzio-arazoak dituzten pertsonak edo droga-mendekotasuna dutenak
pobrezia edo bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak
gaixotasunak dituzten pertsonak (kronikoak, arraroak...)
familiak (ugariak, guraso bakarrekoak, guraso bananduak...)
gutxiengo etnikoetako pertsonak
presoak eta preso ohiak
etxerik gabeko pertsonak
emakumeen aurkako indarkeriaren biktimak (emakumeak)
prostituzioan diharduten pertsonak
LGBTIQ+ kolektiboak
populazioa, oro har
beste hainbat pertsona eta kolektibo

GERTAKIZUNAK

Mendekotasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak
Bazterkeria- egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak
Babesgabetasun-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak
Desgaitasuna duten pertsonak
Beste hainbat kolektibo zaugarri

JARDUERAK: ZERBITZUAK

Bitarteko eta bitartekaritzari buruzko informazioa eta orientazioa
Etxez etxeko laguntza
Esku-hartze sozioedukatihoa
Esku-hartze psikosoziala
Garapen komunitarioa edo tokikoa
Eguneko arreta edo eguneko zentroa
Gaueko harrera
Babesdun ostatu-aukerak
Egoitza-zentroak
Bitartekaritza
Lagun egite soziala
Laguntza edo prestazio ekonomiko pertsonalak
Elikadura
Aholkularitza, orientazioa (juridikoa, laborala...)
Zentro okupazionala edo enplegu-zentro berezia
Trebakuntza eta heziketa
Osasun-arreta
Aisia eta denbora libre
Beste zerbitzu batzuk

JARDUERAK: BESTELAKO ERAKUNDE SOZIALAK

Sentsibilizazioa
Eskubideen salaketa eta sustapena (maila indibidualean eta kolektiboan)
Premiak ikertzea eta hautematea
Berrikuntza
Sektore publikoarekin eta beste hainbat eragilerekin hitz egitea
Arauk prestatzeko edo aldatzeko prozesuetan parte hartzea
Boluntariotza, elkarrekiko laguntza, gizarte-partaidetza eta asoziazionismoa sustatzea
Hirugarren sektoreko beste erakunde batzuentzako laguntzak edo diru-laguntzak
Babes-programak edo -ekintzak (prestakuntza, aholkularitza...) hirugarren sektoreko beste erakunde batzuentzat
Beste jarduera batzuk

OHARRAK	LEHENTASUNEZKO JARDUERA-ESPARRUAK
<p>Gaixotasunek eragindako pertsonen eta haien familiei laguntza eskaintzen dieten erakundeak, betiere haien jarduna osasungintzaren esparrukoa izanik, osasun emozionala eta terapia psikologikoa barnean hartuta. Osasun-arazoak izanik bazterkeria-prozesuetan ez dauden pertsonetara zuzendua da haien jarduna, nahitaez mendekotasun- edo desgaitasun-egoerak sorrarazten ez dituzten aldetik.</p>	Osasuna
<p>Batez ere gizarte- eta lanean txertatzen diharduten erakundeak; horien artean biltzen dira gizarteratze-enpresak, enplegu-zentro bereziak eta enplegua eta ekintzailatza sustatzeko erakundeak. Oro har, bazterkeria-egoeran edo -arriskuan dauden pertsonak ditu hartzaile, baina baita desgaitasunen bat duten edo zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonak ere.</p>	Enplegua
<p>Oro har, desgaitasunen bat duten pertsonak edo babesgabetasun, mendekotasun edo bazterkeria-egoeran edo arriskuan dauden pertsonak artatzen dituzten pertsonak (gizarte-ekintza izenez ere deitzen dira, zentzu hertsian). Haien jarduna, batez ere gizarte-zerbitzuak eskaintzarekin lotzen da, baina enplegu-, osasun- eta/edo aisialdi-zerbitzuak ere eskaintzen dituzte.</p>	Gizarte-zerbitzuak
<p>Erakundeon jardura haur eta nerabeekin esku-hartze sozioedukatiboa eskaintzera bideratzen da, eta haien eskubidean sustatzearekin lotzen dira, zaurgarritasun-egoeran dagoen kolektiboko kide diren aldetik.</p>	Aisia eta denbora librea
<p>Hegoaldeko eta ekialdeko herrialdeen garapenean lan egiten duten erakundeak (GGKE). Oro har, haien jardunaren zati handi bat pobrezia- edo bazterkeria-egoeran dauden pertsonetara zuzentzen da, edo babesgabetasun-egoeran dauden adingabeekin esku hartzera.</p>	Garapenerako nazioarteko lankidetzak
<p>Zaurgarritasun-egoeran dauden kolektiboen berdintasuna eta eskubideak sustatzen diharduten erakundeak (emakumeak, adinekoak, gutxiengo etnikoetako pertsonak, guraso bakarreko familiak, gay eta lesbianak, etorkinak eta bestelakoak). Gehien-gehienik, garapen komunitarioko jarduerak garatzen dituzte (informazioa eta orientazioa, sentsibilizazioa, partaidetza sozialaren artikulazioa, elkarrekiko laguntza...).</p>	Sozial-transbertsala
<p>Hirugarren sektore sozialeko erakundeak sustatzera bideratutako hirugarren sektoreko erakundeak, besteak beste aholkularitza sozialeko, prestakuntzako, ikerketako eta abarretako zerbitzuak eskainiz, sektoreko errealitatera egokiturik. Era berean, barnean hartzen ditu ekonomia alternatibo solidarioa sustatzen duten erakundeak, aurrekoetatik kanpoko esparru batean diharduten sektoreko erakundeak, eta hainbat esparrutako erakundeak batzen dituzten sareak.</p>	Beste batzuk (zehaztu)
OHARRAK	EKIMEN MOTA
Eragindako pertsonen eta familien zuzenean osatutako erakundeak	Zibikoak
Aurreko irizpidea betetzen ez duten erakundeak	Hirugarren pertsonen aldekoak